

2001EKO AURREKONTUAK · GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN
KULTURA GAUR, OSTIRALA, BERROSO SAIOA HERRIKO ANTZOKIAN

BARREN

Idazlehiaketa 2001

44
IDAZLEHIAKETAKO SARIAK

idateden plazerra piztu nahion

"HITZAK HAIZEAK ERAMATEN, ESKRIBITZEN DANA GELDITZEN" (Esaera zaharra)



Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobia eskaintzen dizu: **TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA**

2001/2002
IKASTURTEA

San Roke Auzoa, 1
20870 Elgoibar
Ta. 943 74 41 32
F. 943 74 41 53
ingenieria@fmh.es
www.fmh.es



Enpresarekin lanean garatutako lanbide proiektua.


Lan-kontratua prestakuntzaren lehen egunetik.

Emitza erakargarriak: tituludun %100ak **lanean** dihardu eta hauetatik %25ek zuzendaritzako ardurak daramatzate.

• **APIRILAREN 25ean**, asteazkenean, bilera informatiboa egingo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azaltzeko.

• 18.30ean Makina Erremintaren Intitutuko (IMHko) instalazioak bisitatuko dira eta 19.00etan bilera informatiboa hasiko da.

• Maiatzaren 23a arte matrikula epea zabalik.



JAZAR MULTIPRECIO




ETXERAKO OSAGARRIAK • DEKORAZIOA
GARBIKETARAKO MATERIALA • ESKOLA MATERIALA
FERRETERIA • JOSTAILUAK • POLTSAK
BARRUKO ARROPA • MAKILAJEA

Pedro Muguruza Etorbidea, 29 · Tel. 943 748 415

Ailifk

Ost





Opor Santuak

Batzuentzat joan den martitzenean amaitu ziren, beste batzuk domeka tristea izan_go dute etzikoa, eta asko izan_go dira i_garri ere e_gingo ez dutenak. Bukatu dira oporrak. I_garo berri diren e_gun hauek ez dute notizia aldetik ezer berririk ekarri: auto istripuak, prozesioak, patestinarren harriak, israeldarren bonbak, Realaren e_goera kaskarra, Aberri E_guneko ospakizun zatikatuak, hauteskundeei begirako berba jario etenbakoak... Zaharrak herri.

Ezer berririk ez dakarte, baina e_ghienontzat beharrezkoak dira oporrak, e_guneroko bizimoduan "kit-kat" bat izatea osasuntsua baita. Norberaren buruarentzat, batez ere.

Buruari deskantsurik eman ez diotenak asteen zehar Bilbon bildu diren filosofoak dira. Harrituta irakurri dut Filosofo Gazteen 38. Kongresua e_giten ari direla bertan. Lagun artean, ordu txikietan, botila huts eta ke urdin artean izaten diren elkarrizketei esaten diet nik, ezjakin halakoak, filosofatzea. Baina Bilboko bestelako filosofatzea omen da. Gaurkotasuna eta in_guruko e_gizartearekiko lotura bilatzen dituztela diote han batutako berrehun in_guru filosofo gazteek.

Beti asteburu, jai e_gunen, zubien eta oporren zain da_goen e_gizarte honek behar ditu, hai, pentsamendu haize berriak, sarritan sortzen zai_gun itolarria arinduko dutenak.

Montse Arregi



Aste Santutik abuzturako zubia

Etorri eta joan dira irrika biziz itxaroten ari e_ginen Aste Santuko opor egunak. Oporretara herritik kanpora joan direnek denbora luzez antolatutako bidaia egin dute azkenean eta herrian e_gelditu direnek, aldiz, lasaitasunez eta isiltasunez e_gozatu dute. Baina egun hauek ere bukatzen dira eta e_guneroko bizitzara bueltatzen gara: laneko ordutegia, trafikoa, obretako zaratak, e.a.

Dena ez da hor bukatzen, da_goeneko ahutzuko oporrak be_gi bistan dituzte gehienek. Gainera, irrati, telebista eta komunikabideek anuntzio uholde batez bonbardatzen e_gaituzte. Bidaia a_gentziek ere beraien eskapareak arprzki eta prezioz heteriko mapamundi bat osatzen dute. Orduan bai hasten e_garela bidaiatzen. Gure irudimena, ar_gazkiak ikusi ondoren, he_gan hasten da, eta he_galdi horren bidez abuztuko oporrak lehenbailehen heltzeko zain e_goten gara. Baina lasai, azkenean dena heltzen da eta joan e_giten da. Hori bai, momentua "topera" disfrutatu behar da, hori geldituko baitzai_gu oroimenean.

Jokin Martinez

O
(i)
eD
O
notizis
5

auRRekontuAk.....	
MOTZak	8
(2r) e _h ioarria	11
kiROlAk	10
aGenda	

Urruzunoren begi ezkutua

AEK EUSKALTEGIAK ETA KORRIKAK ELGOIBARTA RREI

Hamaika egunetan zehar euskararen alde mundu bat bildu nahi izan duen Korrika 12. honek, Elgoibarrera heltzean izan zuen harrera ona eskertu nahi dugu, bai antxintxika egiten eta bai animatuz.

Era berean, Udaleko Euskara eta Kultura Batzordeek zein Ongarri Zine Klubak AEK euskaltegiarekin elkarlanean ahalbideratu dutelako Korrika Kulturalako antolaketa.

Baita Elgoibarko dendak, tabernak, enpresak, partikularrak zein euskararen alde kilometroa egin duten erakunde, ikastetxe, alderdi, talde... ere, emandako diru laguntzaz, Baionan euskaltegi berria eraiki eta euskararen alde eguneroko lanean jarraitzeko nahia erakutsi dutelako.

Hautetaz gain, Azkue argazkilariari eta AEK-ko laguntzaile, ikasle eta parte-hartzaile guztioi, gure esker ona luzatu nahi dizuegu egindako lana eta emandako laguntzarengatik.

Halaber, Ikastola, Herri Eskola eta Pilar Ikastetxeari Korrika Txikia antolatzeagatik.

Bukatzeko, AEK euskaltegiak gogorarazi nahi dizue Korrika 12.a bukatu den arren, lasterketa ezin dela geratu. Ondorengoek euskara osasuntsu eta bizirik izatea nahi badugu, lekukoa, berriro, bakoitzak dugu geure esku eta horretarako ezinbestekoa da elkarlanean jarraitzea, euskara denona baita.

Mila esker guztioi.

euskaltegia

DENDARI, BANKARI ETA KONTSUMITZALEEI

Duela egun batzuk kartera lapurtu zidaten lantokian, Elgoibarren. Kartera falta nuela konturatu nintzenerako ordubete pasa zen eta ordurako, lapurrek Elgoibarko bi dendetan erosketak eginak zituzten eta gastatutako diru kopurua ere nahiko altua zen. Hirugarren dendari baten konfidantza ezari esker, honek nortasun agiria erakusteko esan zien-eta, erosketak geldiaraztea lortu zuten baina lapurrek berehala ihes egin zuten.


Dendari jaunak: Zergatik ez diozue txarteletan ordaintzen duen edonori nortasun agiria erakusteko eskatzen?

Bankari jaunak: Zergatik ez diezue dendariei txarteletan ordaintzen duen edonori nortasun agiria erakusteko exijitzen?

Kontsumitzaileok: Dendaren batean nortasun agiria eskatzen badizuete ez zaitzete haserretu, ez da konfidantza falta-eta, gure txartelak erabiltzerakoan segurtasuna da.

Ez diezaiegun lapurrei laguntzarik eman.

F.G.E.
N.A.N. 15378'748



Udarak soinekoz aldarazi zituen etxeak. Eta eoiz batez hormak kolore desberdinekin margotutak esnatu ziren.

Zelofanez estalitako arnatsak balira bezala. Egun hartan, kaleen izenak aldatu egin ziren eta biztanleek gustukoaren zuten izozkiaren zaporeaz mozturatu zituen adreiluzko paretak. Herritarrek aulkiak atera zituzten espaloietara eta egunkariarekin egindako txapelak buruan jantzita, bizitza beraien aurretik nola pasatzen zen ikusteari ekin zioten. Pareko bizilagunaren zerralek eztanda egin zuten eta urteetan ezkutuan pasa ziren hainhat pasadizo agerian geratu ziren, biluzik. Trapu zaharrak bistaratu ziren. Eta voyeur herri hark bizitzaren ikuskizuna zirko bat zela jakin zuen. Zirko orotan pailazoak, malabaristak eta domadoreak daudela konturatu ziren. Orduan, aulkiak batu eta begiratzeari laga zioten, askozaz aberatsagoa zelako bizitza besteak nola bizi diren ikustea baino.

Jasone Osoro



BaRR

Natarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
v 943 74 41 12
Publizitatea:
v 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
HeIbide Intormatikaa:
www.topagunea.cornibarren
ARRARATZALEA
Efrn Zarra

ELGOIBARKO IZARRA
M.I.C.I. 71.111.111

LAGUKZALEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Eli AIZPURI KAZETARIAK I rati Agirreazaldegi, ASISf Orbea PubliarrATEA Andoitz Agirregomezkona MAKEIATZALEA Bea Ansola ADMIIIISTRAWA Amaia Fludigez Geastazia Jon Peli Unguen ela M. Angeles O rtuoste. KOLABORATZALEAK Amaia Laria, Unal Argarale. Eg uzkiña Aranberh, Lorea Perez de Albene, Jolon Madinez. Aitor Zsbaleta. Leire Uricid, Olga Unzilla. Montse Arregl. JUarilit0 Gorosliza, Iker Maguregi, Jon Gurrubmga. Jon Eugi, Armbao Andonegi. Kaltee K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEICO ESALDIA Gotzon Garate: INPRIATEGIA Genu Koop. E. TIRADA 4 COO ale LEGE GOADAILLIA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Easko Jatiirlarazako Kuhara Sailak etn Fora Aldundiak diru, lagandiaako aldizkaria.



kutxa
moiske

DANO BAT

5.4 GOITI
ORLIPO DANOBAT

11,11©111

- San Bartolome kalean zabaldu berri duten "Eroski **Bidalak**" alentziakoak txalotu nahi ditu herritar batek: "Eskaparateko **bidaien eskaintza osoa bi hizkuntzatan ipintzen dutelako**: euskaraz eta erdaraz. Herrian bidaiak euskaraz eskaintzen hasi den lehenengo bidaia-agentzta da eta euskaldunontzat hori oso notizia ona da".
- Santa Ana kaleko Etxeberria farmaziaren aldameneko etxeko bizilagun batek **Etxeberria familiakoak** txalotu nahi ditu **farmaziako etxearen atzeko aidean dagoen iturria txukundu dutelako**. "Oin arte belarrez tapauta zauan eta inork gutxik pentsauko zaban han halakorik zauanik. Oin batkoitxik itxurrixa ikusi leike".



GREZIA



Andres Gabilondok komertzial gisa egiten du lan eta bidaiatzea ohikoa du. Dena den, lan bidaietz gain herrialde asko bisitatu ditu. Duela bi urte Grezian izan zen, "lau bikote elkartu eta Greziara jun ginan". Joan aurretik greziarrak garratzak eta gogorak izango zirela iruditzen zitzaion. Batez ere, kirol talde greziarren zaletuen irudia etortzen zitzaion burura. Usteak erdi ustel, ordea, bidaia guztitik azpimarragarriena greziarrek egin zieten haffera izan zela aipatu baitigu, "biajia oso atsegina izan zan. Ezautu genitxuan greziarrak oso jatorrak eta legalak izan zian. Jende guztia Mikonos eta Creta moduko isla turistikuetara jutun da, baina gu Paros eta Andros isletan izan ginan. Isla ezezagunauak dia eta atzerritar gutxi aurkitxu genitxuan. Hori dala-eta bertakuekin harreman zuzenaua **euki genduan**". Greziarrak Komertziotik eta arrantzatik bizi direla aipatu digu, "hemen baina modernidade gitxiao ditzuzten arren, Grezia oso ondo zainduta eta garbi dao. Izugarritzko lekuak dao. Atenas hiriburua beste kontu bat da; oso zikina dao eta desastre bat da". Kalitate/prezio harreman ere aipatu digu, "karuena biadjia da, baina bestela nahiko merke urtetzen da. Errepikauko **nuken** esperientzia da".


VIAJES

311.3191:1 inezEIE


BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA

Foruen enparantza, 3• Tei: 943 74 39 12




**1-1 71 P.11****% 14,07**


Zor publikoa	162.948.788 pta.
Gestio ekonomikoa	61.016.918 pta.
(;17111< 1	223.965.706 pla. tiaz 216.697.397 pta.)

BARNE SAILA**% 13,25**


Goberno organoak	47.020.927 pla.
Vintinistrazio orokorra	72.893.792 pta.
Itiriko segurtasuna	91.005.525 pta.
GIZ11111	210.920.244 pta. (lar 178.023.821 pta.)

ONGIZATE SAILA**% 17,91**

Gitarte bahesa	3 674.240 pta.
Gizarte ekintza	157.538.807 pta.
Zaharren hiltokia	6 650.000 pta.
kaleen garhiketa eta honclakinen gestioa	96.110.796 pta.
Hilerria	10.000.000 pta.
Kontsundttaileen eskubideen bahesa	2 542.000 pta.
Itoka	8 637.140 pta.
GIZDIRA	285.152.983 pta. (laz 249.888.459 pta.)

1-121 11f 7A**% 36,1**

Hirigintza	293.873.934 pta.
Saneamendua, horniketa eta ur banaketa	91.902.721 pta.
Bide publikoa	159.518.901 pta.
Nehatal garapena	29.474.290 pta.
Gztutux	574.769.846 pla... (laz 333.830.509 pla.)

9JLT 1JF1A**% 18,68**

Hezkuntza	29.325.498 pta.
kultura	202.878.621 pta.
11 bu rutegia	15.677.872 pta.
Euskara	49.538.230 pta.
(it Z FIR	297.420.221 pta.. (laz 286559.814 pta.)

FJAFIFIPRAK

Zerga zuzenak	297.700.000 pta. (Iaz 257.750.000 pta.)
Zeharkitko iergak	40.000.000 pta. (Iaz 50.000.000 pta.)
Tbak eta hestelako zergak	224.035.307 pta. (Iaz 230.549.000 pta.)
Transferentzia arruntalt	701.425.992 pta. (Iaz 700.750.000 pta.)
Sarrera patrimonialak	3519.800 pta. (Iaz 3.025.000 pta.)
Inhertsioen enajenazioa	230.729.000 pta. (Iaz 500.000 pta.)
Kapital tranqerentziak	94.818.901 pta. (Iaz 0 pta.)
GLITIRA	1.592.229.000 pta. (Iaz 1.265.000.000 pta.)

[JAK

Perkonal ga.mak	341.972.978 pta. (Iaz 325.223.866 pta.)
ti.rtu arruntak	421.958.476 pta. (Iaz 348.979.387 pta.)
fia*tu iinamzieroak	39.497.568 pta. (Iaz 37.983.268 pta.)
Tian*ferentia muntak	267.528.367 pta. (Iaz 266.522.353 pta.)
hthert,i(mk	373.745.701 pta. (Iaz 141.686.399 pta.)
Be,telako dirukilamtnl.....	24.074.690 pta. (Iaz 23.542.876 pta.)
Nbilepen amortiraio,t	123.451.220 pta. (Iaz 121.061.851 pta.)
GUZTIRA	1.592.229.000 pta. (Iaz 1.265.000.000 pta.)

Udalak 1.592.229.000 pezetako aurrekontua onartu du 2001erako laz baino 327.229.000pezeta gehiago izango dira gastuetarako

.Ioan den apiritaren 6an egindoko plenoan onarfu zuten 2001erako Udat Aurrekontua. E,41, EA eta EFlren aldeko botoekin PSE-EEren aurko-koekin eta PPko zinegofzi bakarraren abstenizioarekin baiezkoa eman zioten 1.592.229.000 pezetako aurrekontuari.

Maribi Agirregomezkorta Haziendako zinegotziaren esanetan aurtengo aurrekontuak kutsu inbertitzailea dauka. Izan ere, hor daude kanpoko piszinak eta Goiko Errotako zubia egiteko proiektuak. Esaterako, igerilekuak egiten hasteko aurtengo aurrekontutik 108.501.544 pezeta erabiliko dira eta hori oso kopuru esanguratsua da.

PSE-EE aurka Alderdi abertzaleek aurrekontuaren aldeko botua eman arren, aurkakorik ere

izan zen. PSE-EEK hainbat arrazoi eman zituen aurrekontuaren aurkako botoak argudiatzeko. Aurrekontua egiteko erabili den metodologiarekin ados ez egoteaz gain, beste argumentu batzuk ere azaldu zituzten: giza baliabideen arduradunaren kontratazioarekiko ezadostasuna, eskailera mekanikoen proiektua aurrekontuetan ez sartzea, behartsuekiko sentsibilitate gutxi izatea, Udalbiltzari dirulaguntza ematea eta Altzola auzoa ahaztuta izatea, besteak beste.

"Aurtengo aurrekontuak kutsu inkertitzailea dauka: piszinak edo Goiko Errotako zubia egiteko proiektuak esaterako"

MARIBI AGIRREGOMEZKORTA
UDALEKO HAZIENDAKO ZINEGOTZIA

PPren abstentzioa

PPko Iñigo Arkauz abstenitu egin zen, "teknikoki zuzena da, ez baita lan erraza aurrekontu bat egitea. Baina politikoki ez nago ados, besteak beste Udalbiltzari emandako dirulaguntzagatik. Nahikoa eta soberan iruditzen **zait** aurrekontua kritikatzeko".

EHren proposamena

EHk baiezko botoa eman arren hainbat zehaztapen egin zituen eta baita proposamen bat ere. Aurrekontua egiten denean jarritako helburuak betetzen ez badira zergatiak edo arrazoiak aztertu beharko liriteke urtea amaitzen denean, hurrengoan berdinean ez jausteko.

San Lazaro Egoitza eta Kirol Patronatua

Aurrekontu orokorrez gain Udaleko bi erakunde autonomoek ere beraien aurrekontuak eman zituzten ezagutzera. San lazaro egoitzak 117.221.000 pezetako aurrekontua du eta Kirol patronatuak berriz 88.150.000 pezetako.


Adin txikikoei alkoholdun edariak ez zerhitzea kontrolatuko du Udalak

Larunbat bakoitzean bi taberna zainduko dituzte udaltzainek

Elgoibarko hainbat gurasok Udalean kexak aurkeztu dituzte adin txikikoei alkoholdun edaririk ez zerbitzeko dagoen araudia betetzen ez dela-eta. Horregatik, Udaletik tabernariei gutun bana bidali diete araudia zehatz-mehatz bete dezaten eskatuz. Agindua bete ezean araudiaren arabera erabakiko dute tahernariari zein zigor jarri edo arazoaren aurrean zein neurri hartu behar den.

Nortasun agiria eskatu

Elgoibarko gaztetxoak ezezik kanpotik etorritako adin txikikoak ere ibiltzen dira Elgoibarko tabernetan, larunbat arratsaldetan batez ere. Gazte hauei alkoholdun edaririk ateratzen ez dietela egiaztatzeko



Adin txikikoei alkoholdun edariak zerbituz gero, araudiaren araberako neurriak hartuko ditu Udalak.

larunbat bakoitzean bi taberna ikertuko ditu Udalak, udaltzainen bidez. Horretarako udaltzainek gaztetxoei nortasun agiria eskatuko diete, eta adin txikikoa izanez gero, gaztea ezezik tabernaria ere identifikatuko dute alkoholdun edaria zerbitzeagatik. Udaltzain buruak esan digunez, "Kontrol hauek egiten hasi garetik hainbat tabernetan aurrez ere tabernariak beraiek gaztetxoei karnetak eskatzen zituztela egiaztatu dugu".


Gazteen ahalegina

Hala ere, Udalak garbi utzi nahi du gazteen gehiegizko alkohol kontsumoa arazo bat dela, baina tabernariak bakarrik ez dutela horren ardura. Beraz, arazoari irtenbidea emateko hezitzaileek, gurasoek, eta batez ere gazteek beraiek ahalegin berezia egin beharko luketela.




ESKERTZA

2001eko apirilaren 5ean, 80 urte zituela hil zen ENRIQUE ARANO OREGIren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

2000ko apirilaren 21ean, 75 urte zituela hil zen AGUSTIN SAGASTA ISASMENDIren oroimenez URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian igandean, hilak 22, eguerdiko 12:30ean. joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.





Jende asko izan da Aste Santuko bi prozesioetan

Prozesio giroan ospatu dute Elgoibarko eliztarrek Aste Santua. Hainbat herritarrek oporretan kanpora joateko erabakia hartu arren, badira hemen gelditzen direnak. Horieta batzuk Elgoibarren bi prozesio ikusteko aukera izan dute. Lehenengoa apirilaren 8an izan zen. Erramu igandea zela-eta Plazan erramuak bedeinkatu ostean Jesusen paperean mutiko batek asto gainean zeharkatu zituen kaleak beste hainbat gaztetxo inguratuta. Hurrengo igandean, apirilaren 15ean, Aina Birjina eta Jesusen eikartzea irudikatu zuten. Bi ospakizun erlijiosoetan, eguraldia lagun, herritar asko bildu da.

3 kilo inguruko lubina arrantzatu du Juan Manuel Sarmiento altzolarrak

Sarritan entzuten da gure inguruko ibaiak kutsatuta daudela eta garai batean bertan bainatzen baziren ere gaur egun zakarra besterik ez dela ikusten. Baina ez da urrutira joan behar argazkikoa bezalako altxorrek arrantzatzeko. Altxolako Juan Manuel Sarmientok joan den apirilaren 11n Deban harrapatutakoa da esku artean daukan pieza. 3 kilo eta 250 gramo pisatzen zituen lubina etxekoan artean jan zuten. Juan Manuel askotan joaten omen da arrantzara. Ea beste horrelako piezarik arrantzatzen duen jaster.



Baserrietan buzoi berriak ipini behar dituzte Debemenek eta Udalak

Orain dela hamar urte jani zituzten lehen aldiz basenietarako buzoiak Debemenek eta Udalak. Denboraren joanak, ordea, hondatu egin ditu eta buzoiak aldatzeko erabakia hartu dute. Lehenengo egurrezkoak metalezkoengatik ordezkatzeko dituzte. Lehenengo leku beretsuan kokatzeko dituzte, basenietako bidegurutzeetan, hain zuzen ere, eta forma ere antzekoa izango dute. Elgoibar inguruko bailaretan etxe berriak egin dituztela jakinda eta lehendik batzuk buzoirik ez daukatenez, berriak jarri baino lehen Debemenera deitzeko esan nahi diete (943 74 40 67).



Udalak lan poltsa sortzeko deialdi publikoa egin du

Elgoibarko Udalak Udaltzaingo departamendurako eta koordinatzaile lanetarako behin-behineko pertsonal beharrei erantzuteko lan poltsak sortu nahi ditu. Horretarako deialdi publikoa egin du, eta eskariak aurkezteko azken eguna, bihar, apirilak 21, izango da Udaleko Erregistro Orokorrean.

Iarakola" ibcita egongo da hilaren 23tik maiatzaren 7ra arte

Henitarrei, eta batez ere San Roke auzoan bizi edo bertara maiz joaten direnei aditzera eman nahi zaie, "Karakol" izenez ezaguna den trenbide gaineko oinezkoen pasabidea ityla egongo dela obrak direla-eta. Lanak hasita dauden arren pasabidea apirilaren 23tik maiatzaren 7ra arte itxiko dute. Beraz, denbora tarte horretan beste pasabidea erabili beharko dute San Rokera joan nahi duten oinezkoek.

Euskal Nortasun Agiriak ez du baliorik Izango maiatzaren 13ko hauteskundeetan ONARTU BEHAR AL LITZATEKE EUSKAL KARNETA BOTOA EMATERAKOAN?




**J.M. DOMINGO
AGIRREGOMEZKORTA**
47 urte, nikeladorea

Nere ustez bai. Nik ez dakat oindioeuskal karnetik baina ateratzeko asmua bai. Nun ein enterau bihar naiz lehenengo

.MARI CARMEN AGUILERA
32 urte, etxeoandrea

Bai, onartu beharko lukete. Nik ez daukat baina ateratzeko proposamena eginez gero agian aterako nuke, baina bestearekin, oraingoz, nahikoa daukat.



FCO. JAVIER SANCHEZ
50 urte, agente komertziala

Errespetatu egin beharko lukete eta euskaldunoi ez ligukete hori ukatu behar. Antikonstituzionala dela esaten duten arren niretzat euskal agiria tramitatzen ari naiz.

GURUTZE MUGERZA
30 urte, etxeoandrea

Bai, baina nik momentuan ez dakat eitzeko asmorik. Oin dakatenakin moldatzen naiz eta kanpora askotan juten naizenez hemenguak ez dau balio ezertarako.



IHER MAGUREGI
24 urte, ikaslea

Bai, gainera guztiok egin beharko genukeen desobedientzia bat da. Guitiok euskal karneta atera eta horrekin joan beharko ginateke botoa ematera.

AMAIA URANGA
38 urte, etxeoandrea

Baietz uste dot. Hala ere, ez dot planteau nik karnet hori ateratzerik. Erreztasunak eta informazio gehixao eman biharko litxuzkete horren inguruan, orduan igual eingo nuke.



E,2591⁴
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 0 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83




Gazti

BA

RRen



"Iaz Mendaron bigarren sarixa irabazi naban baina hau izan da jaso dudan inportantiena"

OIHANA APELLANIZ

G A I A N A I Z

(hE Allman brothErs banl)

IDLEWILD SOUTH

E E. B B-etako hegoaldeko bluesa-ren esentzia da The Allman Brothers Band. Taldea 1969an sortt zen eta oraindik errepidean jarraitzen hadu ere, gorriak pasatakoak dira. Duane Allman gitarrista 1971an hil zen moto istripaz. "At The Fillmore East" zuzeneko mitikoa eta gero. Berry Oakley

berriz. urte bete geroago zendu zen antzeko ezbehar batean. Azken albisteak ere ez dira onak. Diekev Betts kanporatu baitute.

"Idlewild South" i 1970ean argitaratu zen. Fonnazio originala mantentzen zen oraindik: Gregg Allman teklatuan eta ahots nagusian. Duane Allman lehen gitarran, Berry Oakley baxuan, Dickey Betts lehen gitarran et:t baterian Buteh Tnteks eta J. J. Johanson. Zazpi ahestiz osatutako diskoa "Revival" alai batekin hasten da. "Midnight Rider" Gregg Allman -en konposizio onenetako bat dugu, ahoks melodia bikaina hegoaldeko gitarra malenkoniatsuekin jantzita. Dickey Betts-ek. beniz, Miles Davis omentzen du "In Nemory OP Elizabeth Reed" instrumentalean: ia zazpi minutuko paradisu musikala. Willie en "Hoochie Coochie Man" kantan Berry Oakley-ek hartzen du aheslariarell papent.

Rock-a, blues-a. jazz-a eta country-a ezin hobeto uztartzen ditu talde estatu batuarntk. Lanean dihardute Gregg Allman eta konpainiak. eta luzaroan jarrai dezatela. "Idlewild South" blueszale orok entzun heharko lukeen bitxia da.

Jon Gurrutxaga



2 **BARREN**

OIHANA APELLANIZ Elgoibarko Izarra Idazlehiaketakc "MomEntuan zEla sentitz



ILUNTASUNEAN ITZULI IPUINEKO PROTAGON ILUNEZ BUELTATU EZ ASTE SANTUA HELT: ELGOIBARKO IZARR ETA OIHANA APE ELGOIBARTARRAREN "I JASO ZUEN BERE MA ZIENTZIEN ALORREAN ERE ONDO MOLDATZEP OIHANA APELLANIZEN H

Ez da horrelako lehiaketa b: irabazi duzun lehen aldia, ezta Iaz Mendaron bigarren sarixa bazi naban. Institutuan idazla bat eixia agindu ziguten, eta u: tero idazlehiaketan parte hart izan dotenez, oinguan ere lehir ketarako idazlana prestazia per tsau naban. Ez naiz asko idaztt kua, noizian behin nere diarixua gauza txikixak idazten ditxu baina holako ipuin edo idazla luziak ez.

"ipuin bat idaztei hasten naizenian bukaeria zelakua izango dan pentsatzen dot"

Askotan idatzi ez arren, nondi jasotzen duzu idazlanak egitko inspirazioa?

Nola sentitzen naizen, hola ten dot, batez ere nere gauza idazterakuan. Bestalde, ipuin bt idazten hasten naizenian bukaeri zelakua izango dan pentsatze dot, pelikula bat ikustera jute

apelduna

naizen, hola idazten dot"

JETXERA OIHANA APELLANIZEN TA, BAINA BATERE AURPEGI 1NA OIHANA BERA IZAN ZEN. ER ZELA BANATU ZITUZTEN IDAZ LEH IAKETAKO SARIAK NIZ 17 URTEKO NESKA MTASUNETIK HEGALDIA" LANAK .KO LEHEN SARIA. IKASKETAK ITEN ARI DA, BAINA LETREKIN .ELA ERAKUTSI DIGU. EA BADA :ETATIK EZER IKASTEN DUGUN.

naizenian ere berdin eitzen dot. Kasu honetan ipuinari bukaera politxa ematia nahi nion, eta bila hasi nintzanean nik irakurritxako beste liburu batzuetako ideak etorri jatazen burura.

Zein motatako gaiak dituzu gogoko?

Ez dakitx edadiagatik edo zergatik dan, baina askotan gaztione artian droga arazuak, anorexia... izaten dia gai nagusixak, gai dramatikuak. Nik hortik urtetzia nahi naban, betiko gaixetan ez jautsia.

Beraz, gai horietatik aterata zer kontatzen du zure ipuinak? Baserri giroko neska baten bizipenak kontatzen ditxut. Gaba iristen darian konszientzia galitzen du. Sorginkeri kutsua daka ipuinak.

Zerbait idatzi behar duzunean nola jokatzten duzu?

Normalian gidoi bat eitzen dot, baina gero gauzak aldatu eitzen dia. Ordenadoria ez jata asko gustatzen eta lehenengo dana eskuz idazten dot gehixenetan. Oin-guan denboraz larri ibili naiz eta

ordenadore aurrian jarri eta nahiko ondo urten jata.

Gazteentzat idatzitako ipuina al da?

Gauza guztiak ez daude garbi-garbi esanda, eta sexua ere azaltzen da. Beraz, hasiera baten danentzat dala pentsau arren, bateron batek esan leike adin batetik beherakuentzat ez dala egokixa. Neri Irakurtzia gustauko jatana idatzi dot.

"Sorginkeri kutsua daka ipuinak. Baserri giroko neska baten bizitza kontatzen dot"

Gazteen artean ba al dago idazteko zaletasunik?

Jendiak idazten dabala uste dot. Norberantzako gauza txikixak, batez ere, gustura idazten dia. Askotan gauza bat kontau biharra dakazu, baina ez zera atrebitzen, orduan norbaitxi esan biharrian idatzi ezkeru, idaztiari gustua hartzera heldu leike.

Uda batez MadrilEn

D


uela hilabete pasatxo hil zen Bitoriano Gandiaga Mendatako poeta.

72 urte zituen utzi gintuenean eta bere bizitza oparoan zazpi liburu idatzi zituen: Elorri (1962). Hiru gizon bakarka (1974), Uda hatez Madrilen (1977), Denhora galdu alcle (1985), Gabon dut anuntzio (1986) eta Ahotsik behartu gabe (1997).

Uda batez Madrilen herak idatzitako hirugarren poeina liburua da. Izenburuak adierazten digun bezala. Espainiako hiriburura joan eta hiri hark eragin zizkion sentimenduak islatu zituen hertan. Idazle frantziskotarrak nattrra izan zuen hizpide hehin eta berriro eta hirian egindako egonaldian topatutakoak zirrara berezia eragin zion.

Uda batez Madrilen liburuko poetnek Bitoriano Gandiaga euskal poeta handia ezagutzeko aukera ederra eskuintzen digute. Baina hon'etarako goian aipatutako bere beste edozein liburuk ere balio digu.

Jon Eugi




IAIAUGA

zerk EriALezp+7en



ZERTAN FIJATZEN DIRA NESKAK MU' HERRIKO NESKA GAZTEENGANA JO D NORMALEAN AHOPEKA ETA SEXU B DIRENAK AZALERATZEKO. LOREA GA NOEMI CRESPO ETA SANDRA ABEJON MUTILEI BURUZ DUTEN IKUSPUNTUA MUTILEKIN EGITEKO AUKERA IZANGO



Neska eta mutil gehienoi gertatu zaigu mutil edo neska batekin gurutzatu; kallean, autobuseko lehiotik begira... eta zergatik jakin gabe elkarrekin txundituta geratu. Lehen begiratuan itxura fisikoak erakartzen duela atentzioaesan digute neskek. "Mutil bat aurretik pasatzen denean, ezagutu ez arren zerbaitek atentziva deitu ahal dizu, eta gehienetan itxura fisikoa izaten da. Gero, jatorra den edo ez ikusi behar da". Zapatu gauean jatorra den igartzea, ordea, ez dela lan erraza aitortu digute mahaikideek.

Mutil batekin ligatzera sartzean zerk erakartzen dituen galdetzean "orokorrean nolakoa den fijatzen naiz" aipatu digu Loreak. Zer esan

nahi du 'ot "batetik bestetik jakera". Hinda. Jarren diote, ez

Gauzeurei "konf kome jasot; serio ipurd diguti

nEskak _ES_ E SEXUtik

11K IKUSTEAN? ERANTZUNAK BILATU NAHIAN U ETA MAHAI INGURUAN EZTABAIDATU DUGU OINEKO KIDEEEN ARTEAN BAKARRIK ESATEN .ONDO, ALAZNE MARTINEZ, VERONICA EGEA, NN DITUGU MAHAIKIDE. ORAINGOAN, NESKEK ZENTRATU GARA. AGIAN HURRENGO BATEAN 1GU.



lorrean' horrek, ordea? putz osoaren itxura, kera eta azkenik, iza-In nahasketa bat behar garrantzitsua dela arrik zer esaten duen,

nola esaten duen baizik. Gainera, hasieran fisikoki erakarri ez arren, berarekin hitz egiten hasi eta eza-gutzen hasiz gero, bere izakera gustatu eta guapoa iruditzen iritsi daitezkeela diote."

SEI NESKEN KOMENTARIOAK

berdinei erreparatu eta antzera pentsatu arren, neskek zat gordetzen dituztela komentarioak aipatu digute, antzarik gehien daukagunekin egiten ditugu mutilei buruzko arioak. Hori bai, ez dia publikoki esateko modukoak. Piropoak an koadrila oso bat "rubia, guapa" eta horrelakoak ez dituzte artzen. Bestalde, gustuko mutilarekin egonez gero, honen k erakarri zituela esatera ez lireratekeela ausartuko aitortu Bai, ordea, begi politak dituela, adibidez.

ZErri errEparatzen diotE neskek mutilak ikustEan?

Zeri botatzen diote begia neskek galdetuko diote mutil askok beren buruari. Demagun larunbat batean (ligatzeko egunik aproposena gehien iritiz). Hona hemen jaso ditugun zenbait erantzun:

- Mahaikideen arabera desberdina da mutil bat atzetik edo aurretik ikusi. Atzetik begiratzuz gero sorbaldak, bizkarra eta ipurdia daude. "Bizkarra oso garrantzitsua da. Politxa izateko zabala eta handia izatea komeni da" dio Alaznek. "Armairu baten antzerakoa" gaineratu du Loreak.

.Neska gehienak bat datoz ipurdiaren kasuan. Askotan zaila da iritzi bat izatea, praka zabal eta kamiseta eta jertse luzeekin tapatuta izaten dute-eta".

||||Mutilei aurrez begiratzuz gero, berriz, aurpegiari eta batez ere begietan erreparatzen omen dute. Ahoak eta ezpainen itxurak ere asko esan nahi dute Alazneren ustez. Aginetan fijatzeke ohitura ere badu.

1|Janzkerak izaeraren berri ematen duela esan digute. Sandrari adibidez, lbakalao' estiloko janzkera dutenak atsegin zaizkio.

||||Mahaikide gehienei bizarra ez zaie gustatzen, nahiz eta askotan komentatzen omen dute beraien artean mutil jakin bati perilla ondo geratuko litzaiokeela. Berdin belarritako eta piercing-ekin ere.

DEmagun orain hondartzan gaudEla. ZErri ErrEparatzen diotE nEskEk orduan?

||||Hemen ere ipurdira, bularraldera eta bizkarrera joan ohi da lehen begiratu, eta baita mitxelinik duen edo ez erreparatzera. "Muskuluak markatuta dituzten mutilak erakargarriak iruditzen zaizkit, besoetan ateratzen diren zainak eta esku handiak ere bai" esan digu Sandrak. Loreari eta Alazneri, berriz, 'muskulitoek' ez diete atentzio gehiegi deitzen.

GAZTETXEAN ZER?

10 urte pasa dira Madalako GaztEtxEa bota zutEnEtik 1991ko maiatzaren 9a gogoratzeko ekitaldiak prestatuko dituzte

Datorren maiatzaren 9an 10 urte beteko dira Madalako GaztEtxEa bota zutenetik. Hori dela-eta GaztEtxekoek egun hura gogorarazi nahi dute eta hainbat ekitaldi antolatuzeko asmoa dute aste horretarako. Esan digutenez, oraindik goiz da ekitaldi guztiak zehatz-mehatz zein izango diren jakiteko baina lehen pausoak eman dituzte eta hitzaldiak, bideo emanaldiak eta antzerkia ez dira faltako. Gutxi barru berri konkretuagoak izango ditugula ziurtatu dute. Hauen guztien artean sorpresa ugari ere egongo omen dira. Zain geratzen gara.



1991ko maiatzaren 6an indarkeriaz hartu zuten GaztEtxea. Hiru egun beranduago lurrera bota zuten eskabadorek.

1.000 pErtsona inguru bildu zirEn UsurbilEn Gazte Asanbladen TopagunEan

Euskal Herriko GaztEtxeetako partaideak elkartu ziren apirilaren 7an



asa den apirilaren 7a egun handia izan zen Euskal Herriko Gazte Asanbladetako partaide guztientzat. Izan ere, larunbat horretan Usurbilen hainbat ekitaldi antolatu zituzten eta bertako kaleetan zehar gazte ugari biltzeaz gain, jai girorik ez zen falta izan. GaztEtxetik esan digutenez, "eguraldia hala **Herri desberdinetako gazteen arteko harremanak sendotzea zen topagunearen asmoa** nolakoa egin bazuen ere, giroa ezinhobea izan zen". Jendearen partaidetza **da** azpimarratu nahi dutena, "hotTelako ekitaldia antolatu eta mila pertsona baino gehiago biltzea txalotzekoa dela iruditzen zaigu".

Jai giroan eguna pasatzeaz gain, bazituzten beste helburu batzuk ere, "GaztEtxe zein Gazte Asanbladen arteko gida aurkeztu genuen eta horrez gain, elkar ezagutu eta herri desberdinetako gazteen arteko harremanak sendotzea zen gure asmoa". Tratua hobetzen laguntzeko, trikitiak, txalapartak, titiriteroek, antzerkilanak, bertsolariak, kontzertuek edota egindako bazkari herrikoiak asko lagundu zuten. "Guztia primeran atera zen".

GAZTETXEAN
ZER?
1991ko
MAY 9
10
URTE
PASA
DIRA
MADALAKO
GAZTETXE
E A
BOTA
ZUTEN
ETIK

lots@gabE

Atal honetan parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri Barrenera. Animatu! Zuen Iaguntza ezinbestekoa dugu!

@ Zertan fijatzen zara pertsona batean?
Ileko puntak irekita ditzuan ala ez.

@ Eta ikustezina hazina, zertan fijatuko zinateke?
Ja, ja, ja... ni, ni, ni! Jesus!

@ Noren argazkia ez zenuke jarriko kamiseta batean?
Disk jockey edo DJ batena.

Saritutako loteriako txartela aurkitu duzu.
Zer egingo zenuke?
Musikako tresnetan gastau.

@ Bideo porno bat ikusten ari zara eta ama sartzen da gelara...
Iragarkixak diala esango nioke.

@ Zein mezu ipiniko zenuke egunkariko kontaktuen atalean?
Deitxu 6969699 zenbakira.

@ Zein gaixotasunekin lotsatuko zinake medikuarengana joaten?
Ladillekin.

@ Ohean txizik egin al duzu noizbait?
Bai, zuk ez ala?

@ Mukirik jan al duzu inoiz? Ze zapore daukate?
Bai. Belarriko menbrilua baino piska bat gazixauak dia.

@ Noizbait harrapatu al duzu txilibittoa kremailearekin?
Noiz edo noiz harrapatu izan didate.

@ Jende artean nahigabe puzkar bat ateratzen zaizu. Zer egingo zenuke:
a. Atzera begiratu eta ezer gertatzen ez bazen bezala egin.
b. *Hau usain trarra! Nork bota du? galdetu, disimulatzeko.*
c. Aire!... esan eta lasai geratu.

@ Esan dizuten piroporik lizunena?
Lehen jan doten mokua baino hobia zaoz.

@ Nora ihes egingo zenuke oporretan?
Musika festival batera

@ Mania bat?
Jendia ignoratzia. Zer esan diazu?


@ Irakasleren batekin pentsamendu lizunik eduki al duzu?
"Parbulitosen", berakin medikueta jolastu nahi naban.

@ Gogoan al duzu zure lehen gaupasa?
Nere amak laga baino hiru urte lehenao. Ama! atara kalkuladoria.

@ Oheratzerakoan pijamarik erabiltzen al duzu?
Ez, galtzontzilotan egiten dut lo.

@ Noiz idatzi zenuen azkeneko aldiz maitasunezko gutun bat?
Gauzak hitz gutxitan esatia gustatzen jata, telefono mobileko mensajiekin nahikua dakat.

<http://jonzaldia@.com> / 16 urte



BERTSITATE EDO IKERKETA-ZENTROETAN ESPEZIALITATEA EDITEKO 6 BEKA

Nork: Alfonso Martin Escudero Fundazioa, Betebeharrekoak: Bekak goi-mailako titulatuentzat edo doktoorentiat dira. Bekaren xetle den herrialdeko hizk menperatzea.

Iraupena: Gehienez ikasturte bat edb 12 hilahete jarraian iraungo ditu. Zenbatekoa: Hegazkineko joan-etorriko bidaia, turista-klasean. - Izen-einateko. matrikulako eta aseguruako gastuak. - Gehienezk 1.600 euroko diru-kopurua hileko, ostatua, mantenua eta liburuak ordaintzeko. Edukia: Gaiek ondoko arloetan sartuta egon behar dute: -Elikagaien Teknologia. - Azaleko Hidrologia: Ustiapenak. - Naturaren Zaintza. Unibertsitatean edo ikerketa-zentroan onartua izanaren egiaztagiria aurkeztu behar da. Epea: 2001-04-27 . Informazio gehiagorako: Funtlaci6n Alfonso Martin Escudero . Telefonoa: 91 5569056

AUTONOMOEN ETA ENPRESABURI: TXIKIEN SEME-ALABENTZAKO ATZERRIRAKO BEKAK
 Nork: Zientzia eta Arteetarako UAPE Fundazioa (Autonomoen eta Enpresaburti Txikien Elkartea. Betebeharrekoak:12tik 25 urtera bitarteko adina izatea. Zenbatekoa: 250.000 pezeta. Edukia: 12tik 25 urtera bitarteko adina duten autonomo eta enpresaburuen seme-alabentzako atzerrirako bekak. Ikasketa-espeditente onak izan arren, familia-errenta haxua dela eta, gure mugetatik kanpo ikasketak burutu eta hizkuntza bat menperatzeko aukerarik izan ez dutenei zuzenduta daude beka hauek. Epea: 2001-04-08. Informazio gehiagorako: UAPE .Telefonoa: 926 242368. Helbide elektronikoa: uape ltape.net

kontzErtuak

20 barixakua

BERGARA
 22:00 Kilg Diamond, Ironica
 Jam Aretoa

OIARTZUN
 23:00 Albert Pla, Txuma Murugarren
 Pagoa Aretoa

URRETXU
 23:30 Lorelei
 Company garagardotegian

21 zapatua
ZARAUTZ
 21:30 Arakajun
 Arrano tabernan

22 domekia
BERGARA
 21:00 Richard Ray Farrel
 Jam Aretoan

25 EguaztEna

DONOSTIA
 Anouar Brahem
 Gasteszena 2001 kontzertu zikloaren barruan

27 barixakua

DONOSTI
 Kenny Werner
 Gasteszena 2001 kontzertu zikloaren barruan

2 EguaztEna

DONOSTI
 Madredus
 Gasteszena 2001 kontzertu zikloaren barruan



Sei txapelkun izan dira Elgoibarko Izarra Idazlehlaketetan

Bost kategoriatan gutunak, ipuinak eta bertsoak idatzi dituzte irabazleek



Joa den apirilaren 6an banatu zituzten Elgoibarko Izarra Idazlehiaketetako sariak. Kultur Etxeko hitzaldi gela gaztetxozen irabazleak txalotu eta era berean Joxe Mari Karrere ipuin kontalariaren istorioak entzuteko. Lehenengo Etxegina bertso paper lehiaketako sariak banatu eta irabazleek beraien bertsoak kantatu zituzten. Ondoren, Joxe Mari Karrere kontalari oreretataren ipuinei adi-adi egon, eta berehala gutunak eta ipuinak idatzi zituztenei eman zizkieten sariak.

Hauek ere gutunak irakurri eta ipuinen laburpen bat egin zuten. Amaieran 5.000 pezetako erosketa txekak zozketatu zituzten bertaratutako en artean.

Sariak Beñat Bilbao Elgoibarko Izarrako lehendakariak eta Udaleko Euskara Batzordeko Miren Arrate Arrietak banatu zituzten. Epaimahaiko lanetan, ipuin eta gutunen atalean, Urruzuno Literatur Taldekoak aritu dira eta bertso-paperetan Irati Agirreazaldegi eta German Meabebasterretxea.

SARITUAK

MARRAZKIA ETA GUTUNA OLENTZERORI

LHko 3. eta 4. mailakoak

1. saria: Kristina Odriozola
2. saria: Eva Jurado
3. saria: Danel Mendibil

AZNAR JAUNARI GUTUNA

LHko 5. eta 6. mailakoak

1. saria: Jon Ander Cerron
2. saria: Xabier Armero

IPUINAK: "EGUNKARIAN AZALDU NAIZ"

DBHko 1. eta 2. mailakoak

1. saria: Ander Gerenabarrena
2. saria: Jon Sanchez

IPUINAK GAI LIBREAN

DBHko 3. eta 4. mailakoak

1. saria: Amaia Gorrotxategi
2. saria: Betlat Konde

IPUINAK GAI LIBREAN

1. saria: Oihana Apellaniz
2. saria: Maite Solas eta Miren Itziar Olaizola

ETXEGINA BERTSO-PAPER LEHIAKETA

LHko 5. eta 6. mailakoak

1. saria: Danele Sarriugarte
2. saria: Aitzol Arrizabalaga

DBHko 1. eta 2. mailakoak

1. saria: Antton Alberdi

Bertso saioa izango da gaur, apirilak 20, Herriko Antzokian gaueko 22:30ean

6 berlsoiari gazte arituko dira Txapelketa Nagusirako txartela lortu nahian

Fuskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusirako Gipuzkoako sailkapen 1. fasea iritsi da bigarren atalera, eta Elgoibarren izango da gaur, apirilak 20, lehen saioa gaueko 22:30ean Herriko Antzokian. Unai Agirre, Bixente Gorostidi, Aritz Aranhuru, Ekaitz Goikoetxea, Arkaitz Goikoetxea eta Jon Martin arituko dira lehen.

Lehen fasea Gipuzkoako hamar herritan jokatu ostean, sailkatutako bertsolari hakoitzak beste hiru kanporaketa jokatu beharko

ditu bigarren aldi honetan. Gaur, apirilaren 20an, Elgoibarren hasi eta maiatzaren 19an amaituko da Lasarten.

Maiatzaren 27an, amaiera ekitaldi berezi bat egingo da Oartzunen. Goizeko 11:30ean hasita sailkapeneko bertsolariez gain Txapelketa nagusirako sailkatutakoak ere arituko dira.

Bigarren faseko lehenengo kanporaketa gaur izango da gaueko 22:30ean, Elgoibarko Herriko Antzokian. Bazkideek 500 pta. ordaindu beharko dute sarrera eta gainontzekoek 600 pta.

Unai Agirre, Bixente Gorostidi, Aritz Aranhuru, Ekaitz Goikoetxea, Arkaitz Goikoetxea eta Jon Martin arituko dira lehen

Zur Ta Lur Areto Futbol Taldea Euskal Ligako txapeldun

Datorren denboraldian Lehen Maila B kategorian arituko dira

Euskal Liga ere txiki geratu zaio "Zur Ta Lur" areto futbol taldeari. Iaz igoera lortu ostean lehen urtea zen "Zur Ta Lur" taldekoentzat Euskal Ligan, baina jadanik lortu dute mailaz igotzea, eta ez hori bakarrik, txapelketa irabazi baitute liga bukatzeko oraindik partidu batzuk falta badira ere. Puntu hagar bat behar zuten matematikoki txapeldun izateko eta Arrigorriagako "Gautxori"



Liga amaitezko partidu batzuk falta badira ere "Zur ta Lur" taldekoek txapelketa irabazita dute.

taldearen aurka lortu zuten pasa den apirilaren 8an. 8 eta 0 irabazi zuten elgoibartarrek Olaizaga Kiroldegian jokaturako partiduan. **Datorren** denboraldian Lehen Maila B kategorian arituko dira elgoibartarrak. Maila honen hurrengo estatu mailakoa da. Azken urteetan izan duten bilakaera

ikusirik, itxaropenik izan dezakegu datorren urtean ere lehen postuak lortzeko borrokan izango direla.

XIL Elgoibarko Lagun Taldea Saria txirrindulari proba bihar, hilak 21, jokatu da

Elgoibarko Lagun Taldea Txirrindulari Eskolak urtero antolatzen duen Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari proba zapatuan, hilaren 21ean, jokatu da. Bertan, kadete mailako txirrindulariek hartuko dute parte. Irteera Foruen Enparantzan izango da goizeko 10:30ean eta helnurga, berriz, Santa Klara kalean kokaturik egongo da.

Etxeberria, De Pedro eta Larrainzar futbolariak Mintxetako zelaian izan ziren asteartean



pasa den asteartean, hilaren 17an, goi mailako 3 futbolari izan genituen Elgoibarren. Joseba Etxeberria elgoibartarra, Jabier De Pedro antiguotarra eta liligo Larrainzar nafarra, hain zuzen ere. Athletic-eko eta Realeko jokalariaiek elkartzeko arrazoia argazki saio bat izan zen. Kirol jantzi etxe ezagun batek hildu zituen 3 futbolariak katalogo batetarako argazkiak ateratzeko. Beraz, jokalaria hauen argazkiak, egutegi edo publizitateren batean aurkituz gero, jakin ezazue Mintxetan ateratako erretratuak direla.

Balzola eta Ansola pilotari elgoibartarrek Udaberri Saria txapelketa irabazi dute



Lagunak Pilota Eskolako J.I. Ansolak eta Arkaitz Balzolak osatutako bikoteak Udaberri Saria Pilota Txapelketa irabazi du nagusien mailan. Pasa den apirilaren 7an jokatu zuten Udaberri Saria txapelketako finala Oñatiko Zubikoa pilotalekuan. Elgoibartarrek Eskoriatzako Erroarte eta Dominguez pilotarien aurka jokatu zuten finala. Azken emaitza 22 eta 10 izan zen elgoibartarren alde. Tanteoak hala erakutsi

ez arren, partidu gogorra jokatu zuten 4 pilotariek. Batez ere, partidaren lehen zatian. Hortik aurrera Balzolak eta Ansolak txapelketa guztian erakutsi duten jokuari esker nagusitasun osoz eskuratu zuten txapela. Guztira Gipuzkoako 11 bikote aritu dira urtarrilean hasi zen txapelketa honetan. Tamalez azken aldian ez da ohikoa herriko pilotariek txapelketarik irabaztea. Beraz, zorionik beroenak Balzolari eta Ansolari.

"Unceta Eigolbar" taldeak Jubenil nesken Espainiako Eskubaloi Txapelketaren sektore fasean hartuko du parte Iruñan



Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeko "Unceta Elgoibar" taldeak Jubenil Nesken Espainiako Txapelketaren sektore fasean hartuko du parte gaurtik (apirilak 20) aurrera. Partiduak Atarrabiako kiroldegian jokatuko dira. "Unceta"-koekin batera honako hauek dira sailkatu diren gainontzeko taldeak: "Les Frane"

(Kataluinia), "La Jota" (Aragoi) eta "Beti Onak" (Nafarroa). Lehen partidua kataluiniarren aurka jokatu dute gaur arratsaldeko 18:30etik aurrera. Bigarren partidua, berriz, "La Jota" taldearen aurka izango da zapatuan (apirilak 21). Azken partidua domekan jokatu dute "Beti Onak"-eko nafarren aurka.

EMAITZAK

Eskubloia

Pagoaga Elg. 27 —J.D. Arrate 13 (Kad. nesk.)

Uncela Elg. 17 — Aloña Mendi 9 (Jub. nesk.)

Areto Futbola

Zur Ta Lur 8 – Gau Txori Arrigorriaga 0

(Euskal Liga)

Idarraga kafeak 4. saria

HAUNDIko jokalarri erregularrena 00/01

JOKALARIA

PUNTUAK

1- Zulaika	34
2- Laskiba	26
3- Lander	22
4- Saiz	22
5- Izagirre	21
6- Alkorta	17
7- Loren	17
8- Caro	16
9- Gurrutxaga	16
10- Joseba	12
11- Portu	12
12- Mugika	9

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Eskualdeko Txapelketa

Larunbata, 21

12:00 Kunta Kinte — A mi me gusta el...

Ijandea, 22

10:15 Vulthur Griphus — Bar Tupi Azpi

11:00 E-90 — Brujeria

11:45 Ganbara — Aizkorak Mendibil

12:30 La Mosca Gau — Cafeteria Arkupe

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 21

16:00 Gaur Elg — Zarautz (Kad. mut.)

merkatu txikia

nk4 Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Urola Erdiko enpresa baterako **elektrikari laguntzailea** behar da. **ERREF: 50163/3**

Urola Kostako enpresa baterako **matrizegintzako edo trokelgirdza-ko 3 aditu** behar dira. **ERREF: 49904/3**

Debabarreneko enpresa baterako elektrizitateko ezagutza dituen **langilea** behar da. **ERREF: 49008/8**

Debabarreneko enpresa baterako mekanizazio zentzurako **arduraduna** behar da. **ERREF: 48834/3**

Lea-Artibaiko altzari enpresa baterako **informatika-administratzailea** behar da. **ERREF: 46692/2**

Eskainfites hau interesgarria gertaeren bazaizu eta lortu nahi izanez gero, gogoan hartu eskaintzaren erreferentzio. Hautagai moduan sartzeo eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langark Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko institutua (Alberto Iturizastillo) **943 74 80 19** edo IMH (Ekaitz Mendizabal) **943 74 41 32** telefonora.

Lana

ESKAERA

• Aste guztian zehar gauetan umeok zaintzeko prest nago. tr 637 51 22 24.

ESKAITZTA

• Emakumea behar da ume bat zaintzeko. tr 619 18 78 09

Mutil bat behar da Iabernako arduraduna izateko. Kontratuarekin. Soldata, hitz egitekoian. ¹¹⁷ **667 52 57 81**

***Asteburuetan tabernan lan egiteko neska** behar da. Esperientziaduna. tr **943 74 37 71**,

***Kamareroa** behar da ostiraletan eta larunbatetan lan egiteko, tr **943 74 39 25**,

***Arrosateko Lanbide Hastapeneko** Zentro bcrtek mekanika gaia enstretoko monitorea behar du goizetarako. FP II edukitzea eta tornuak eta fresadorak erabiltzen aditua izatea eskatzen da, v **943 79 28 90**.

• Sukaldaria behar da jatzetze baterako. tr **943 74 05 80**.

Salerosketak

*Mountain bike bizikleta berria salgai. Orbea-Dokar markakoa. tr **943 74 44 58**.

• 1.05eko bi ohe, armairu handi bat eta bi "mesilla" solgai. Ohe bat estreinatatu gabe dago. Prezio onean. tr **943 74 24 57**. (Egurdian edo ilunizean deitu).

• Argazki kamara reflexa salgai. Yoshica FX-3 markakoa. 50 mm-ko objektiboa eta 70-210 mm-ko zooma. Flasha eta zorroa oparitzen ditut. Prezio interesgarria. tr **943 74 23 52**.

*Knaus markako karabana txiki bat solgai. a **607 39 86 13**. Iban.

♦ "Cama nido" txuria salgai. Azpian kajoak ditu. Prezioa erabakitzeko. tr **943 74 39 31**.

• Garbigaluo sakzen dut eta honekin **kafetera elektrikoa** oparitzen dut. tr **943 74 39 75**. Miren.

♦ Autoa salgai. Renault 11, BI-AS. Kilmetro gutxirekin. Zuria. Ongi zaindua eta merke. tr **943 175461**.

*Deshurnifikadorea salgai. Fagor DH 275. te **616 09 38 92**.

• Marrazketarako mahaia salgai. modelo, 1700 X 1000. **943 74 20 80**.

• Eskiatzeko materiala saltzen dut. tr 943 74 39 65.

Bestelakoak

♦ Urrezko erazlun bat aurkitu dugu San Frantzisko kalean. Hiru perla txiki ditu. **BARREN**en laga dugu.

*Graduotutako betaurrekoak galdu nien zapatuan, hilaren 7an, goizeko 8:30ean, Arrillaga kaletik Santa Klara-ko autobus paradaren artean. v **943 74 02 06**.

• Martxoaren 18an, goiz-eguerdi parrarian, elim aurreko jorlekuetatik altxatzerakoan, kartera erori zitzaidan. Aurkitu duenak deitu mesedez. tr **943 74 05 31**.

• Eraztuna galdu nuen Artetxe auzoan. Hiru harri ditu eta barrualdean "J.M.B a M.A.E. 26-10-49" ipintzen du. Aurkitu duenak dei dezala mesedez. tr **943 74 20 49**. Jesus.

• Egunero joaten naiz Arrasatera eta kotxea konpartituko nuke. 8:00etatik 17:30era. {Flexiblea}. tr **943 74 27 47**.

• Lepoko kate bat aurkitu dut Plaza Merkatu aurrean. **BARREN**en laga dut.

Etxebizitzak

• Etxebizitza salgai Alcoceberren. Hiru sofairutakoo. Itsasoaren ondo ondoan (1. ilaron, v **943 19 10 71**). **649 05 38 05**

• Apartamentua salgai Luz Ardiden. **686 57 04 39**

• Pisua behar dul alokairuan. Altzariekin. v **659 60 36 96**.

♦ Pisua salgai Mendaron. Eguzkikua, logela guzirik kanpoaldera ematen dute. 3 logela, sukaldia, egongela eta bainua. **69 m²**. a **943 75 60 99**. Itziar.

• 3 edo 4 logela dituen pisua erosiko nuke Elgoibarren. tr **626 23 75 70**.

♦ Etxebizitza salgai San Pedro kalean. s:r **943 74 13 68**. (Gauz



Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR



**HERRI-GAIN
ERRETEGIA**

San Pedro auzoa 4
tr 943 74 30 40 ELGOIBAR

Lokalak

*Lokala saltzen da Pedro Mugu-
ruza 10ean, 60-62 m²
a **943 74 06 85**.

Lokal komertziala alokatzen da
Santa Ana leian.
7r- **943 74 12 83**.

Partikularrak

Kurtsoa aurrera doala eta atze-
an gelditzen ari zarela? Zatoz gu-
gana eta taguniza eskainiko dizu-
gu. Klase partikularak 12 urtera
arte. Eulait eta Bidatz.
tat **943 74 10 44/ 943 74 34 99**.

iiaraleak

- Garoje itxia salgai Arregito-
rre kalean. Bi auto sartzeko le-
kua dago. Aukera ezinhobeia.
17 **943 74 00 09**.
- Garoje plaza salgai Arregi-
orren, ir **943 74 07 62**.

Agurrak



Superzorionak Cristina
Conderi, hilaren 12an 13 urte
bete zituelako. Ahizpa Amoia-
ren eta gurasoen partez.



* Zorionak Iñigorri, hilaren
13an 13 urte bete zituelako.
Familiakoen partez.



*Zorionak **Miren Vifieri, hí a-**
ren 17an 6 urte bete zituela-
ko. Eixekeen eta bereziki,
Maiteren partez.



• Oihana, oin ere barrez?
Urtiekin umore alal hori man-
tentzia besterik ez dou nahi.
Zorionak eta zuriak bezelako
patxo haundi-haundi pila bat,
kuadHlakuen partez.



♦ Zorionak Ioni, hilaren 25ean
3 urte beteko dituelako. Familia-
koen eta bereziki, amaren eta
aitaren partez muxu hancli bat.



♦ Zorionak **Ana Mn**
hilaren T 4an 38 urte bete zi-
tuelako. Familiakoen partez
eta bereziki, Sonia, Cesar,
Mario eta Henriqueren partez.



* Zorionak **Aitorri**, apirilaren
10ean 7 urte bete zituelako.
Muxu handi bat familiakoen,
Ninaren eta tia Edurne eta tia
Mari Joseren partez.



♦ Kaixo losu. Berriz ere zure ur-
tebetetzea dalor eta zure fami-
linkoak bihotzez zoriondu nahi
zaitugu. Ondo pasa!



♦ Zorionak Mikel
Astigorragai bere lehen urte-
betetzean. Familiakoen eta
bereziki, arnamaren partez,

Agurrak

*Zorionak **Ainhoari**, hilaren
19an 13 urte bete zituelako.
Besarkada bat "potxoltzima".
Leireren eta gurasoen partez.

Farmazia - okindegia

EGUNEZ

21 Etxeberria*
(Santa Ana kalean)

22 Etxeberria*
(Santo Ana kalean)

23 Etxeberria
(Errosario kalean)

24 Etxeberria
(Santa Ano katean)

25 Bidasolo

26 Etxeberria
(Sonta Ana kalean)

27 Fernandez

GAUEZ

Zabaleta

Zabaleta

Etxeberria

Etxeberria

Bidasolo

Etxeberria

Fernandez

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze
Tel 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparaniza 4, Garagarza
Tel 943 75 61 42

ZABAETA, Kalebarren 9, Soraluze
Tel. 943 75 13 84

OKINDEGIA

22 igandea Fotero

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulatorioa 943 03 26 10
Planning-a . . .943 74 29 50
Alkoholiko Anon:moak 94374 03 85
D YA (anbuiantzlai 943 46 46 22
Gurutze Gorria 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00
Odol Emarleak . 943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 943 74 04 42
PESA (Donostia) 902 10 12 10
Taxi geltokia . 943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua. 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua 943 /4 44 15
Kultura Zerbitzua. 943 74 21 58
Mendaroko Udaia 943 75 61 00
Onglitate zerbitzua 943 74 10 08
Lloaletxea . . .943 74 10 50
ildaltzaingoa 943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgarbarko Izana . 943 74 16 26
Kiroldegia . 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa . . 943 74 30 88
Liburutegia.. 943 74 35 25
Musska EsKoia 943 74 21 45
Mintxeta 943 74 43 15
Parrokia . 943 74 08 42
Postetxea943 74 15 47
Gaztetxea . . . 943 74 35 72

ADINEKOEN FTXEAK

San Lazaro Egoitza. 943 74 02 96
Zaharren Biltokia 943 74 05 26
Eguneko Zentroa . 943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Hern Eskoia 943 74 08 79
I M H 943 74 41 32
Instritutua
Arreiturre 943 74 80 19
Ezenarro Itv1Pkri) 943 74 80 19
Ikastaid 943 74 44 41
Pilar Ikastetxed 943 rd 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
El Diario Vasco 943 74 40 73
El Correo Espanoi 943 i4 10 82
Zazgrki irratia . 943 74 34 74
Egunkana 943 30 02 28
Gara 943 31 69 99

20 BARIXAKUA

22:30 EUSKAL HERRIKO

BERTSOLARI

TXAPELKETARAKO SAIOA

Bertsolariak: Jon Martin, Unai Agirre, Bixente Gorostidi, Arkaitz Golkoetxea, Ekaitz Goikoe txea eta Aritz Aranburu. Herriko Antzokian

21 ZAPATUA

10:30 XII. ELGOIBARKO LAGUN

TALDEA TXIRRINDULARI

PROBA

Irteera: Foruen Plazan
Helmuga: Santa Klara kalean
Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea

19:30-22:15 ZINEA

"Tigre y Dragón"

22 DOMEKIA

16:30 ZINEA

"PoWmon 2"

19:30-22:15 ZINEA

"Tigre y Dragón"

23 ASTELEHENA

17:00 VII. IDAZILAN ETA

MARRAZKI LEHIAKETAREN

SARI BANAKETA

Udal Liburutegiko atarian

Antolatzailea: Udal Liburutegia

22:15 ZINEA

"Tigre y Drawin"

26 EGUENA

16:00 HITZALDIA

Gaia: Zer da homeopatia? Noiz eta nola erabili behar da?

Hizlaria: Karmele Benito

Kultur Etxean

Antolatzailea: DEBABA euskaltea

21:30 ZINE KLUBA

"Harry un amigo que os quiere"

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

27 BARIXAKUA

19:00 APOLINAR

ALDALURREN MARGO

ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Kultur Etxean

Maiatzaren 13ra arte

22:15 ZINEA

"Billy Elliot"

IRUKURUTZETIKARAKATE BIZIRIK

FO

APIRILAK 21, larunbata

22:00 KONTZERTUA

Taldeak: "Astrozombies" eta "Obligaciones" Gaztetxean. Sarrera: 500 pta.

(Elzunean zehar: "Irukurutzeta utzi pakean" infonnazio banaketa)

APIRILAK 25, eguaztena

19:30 HITZALDI-EZTABAIDA

Partehartzaileak: EHNE, Lurra. E.V.E, Elgeako artzaia eta Eskoriatzako Udala.

Kultur Etxean

APIRILAK 27, barixakua

22:30 KONTZERTUA

"Mendien industrializazioa STOP"

Taldeak: "Autoa" eta "Azido"

Gaztetxean

APIRILAK 28, zapatua

18:30 KONTZERTUA

Taldeak: "Desordenes Publicos", "Repulsa Social", "Anomia" (Guztiak Gaztelatik etorriak)

Gaztetxean

MAIATZAK 3, eguena

21:30 ZINEA

"Huellas Borradas"

Herriko Antzokian

MAIATZA 4, barixakua

21:00 BERTSO AFARIA

Jokin Uranga, Beñat Lizaso, Eneritz Azkue

Gaztetxean

Langileak 2.000 pta. Langabetuak 1.500 pta.

Salgai: Toletxen eta Txuri Beltzen


MAIATZAK 5, zapatua

15:00 Irukurutzetan Mendi Akanpadaren irteera

Irteera: Plaza Handitik

Igandera arte

ZINE
kluba



"Harry un amigo quAtimiere"

Zuzendaria: Dominik

Antzezleak: Sergi Lopez, Laurent Lucas, Mathilde Seigner.

Baserri giroko thriller frantseilrikaina da honako hau. Inspirazio handik umore beltz eta tragikoa oso ondo orekatua dago pelikulan zehar, eta itxurakerien atzean dagoen guztia biluzten du maisuki. Michel eta Clair senar-emazteak dira, eta ez daude, ez, bizitzako momenturik gozoenean: landa-etxea konpontzen dihardute, egoera ekonomiko larrian daude, euren 3 alabekin arazoak... Horrek guztiak zaildu egiten du elkarbizitza.

IKASTAROAK

Lurki Elkarteak buztin ikastaroa antolatu du. Batez ere, tornua erabiltzen ikasiko dute animatzen direnek. Ikastaroa maiatzaren 7tik ekainaren 7ra bitartean luzatuko da. Klaseak astelehenetik ostegunera izango dira 18.00etatik 21:00etara. Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero Lurkiren egoitzara zuzendu (Aita Agirre plaza behea-ekz).

JAIK

Kultura Zerbitzutik adierazi digutenez, San Bartolome jaietako Gazteen Egunerako musika taldeei buruz herritarrek dituzten proposamenak Kultura Zerbitzura bidali daitezke. Maiatzaren 15a baino lehen bidali behar dira proposamenak. Telefonoa: 943 74 21 58. Helbide elektronikoa: Kuetxe@teleline.es

OSPAIGUNAK

1951. urtean jaiotakoek Kinto Bazkaria izango dute datorren tniaztaren 19an. San Pedron egingo dute bazkaria eta prezioa 6.000 pezetakoa izango da. Joan nahi dutenek dirua Euskadiko Kutxan (Caja Laboral) sartu beharko dute apirilaren 30a baino lehen.

INAUGURAZIOAK

Danobat Taldeko Estarta Rectificadora S. Coop. enpresak instalazio berriak inauguratuko ditu Sigma industrialdean gaur, hilak 20. Hori dela eta hainbat ekintza antolatu dituzte. Adibidez, 18:00etatik 19:30etara atek irekiko dituzte nahi duten elgoibartar guztiak bertara hurbildu eta instalazio berriak ikusi ahal izateko. Gainera,

Elgoibarko 5 artista ezagunen lanak biltzen dituen erakusketa antolatu dute. Honako hauek dira artistak: Arturo Andrade (eskultura), Mertxe Sueskun (eskultura), Nerea Aranguren (esmaltea), Eduardo Anillaga (argazkilaritza) eta Gema Monreal (pintura). Bestalde, inaugurazio ekitaldian Estartaren historia kontatzen duen katalogoa banatuko da.

DIPOSITIBA EMANALOIAK

"Patagoniako eskaladak: Cerro Torre, Cerro Stanhardt" izeneko diapositiba emanaldia eskainiko du Iosu Merino eskalaztaile elgoibartarrak apirilaren 25ean, asteazkenean, Toletxe tabernan. Emanaldia gaueko 21:30ean hasiko da. Iosu Merinok Patagonian egindako eskaladen inguruan jardungo du. Besteak beste, Simon Elias errioxarrarekin batera Cerro Torre mendian egindako eskalada zaila ikusi ahal izango da (Ferrari bidea, 3.102). Cerro Torre izotzezko eta haitzezko mendi ikusgarria da, eta munduko oso eskalaztaile gutxik lortu dute tontorrera igotzea. Hori dela-eta Iosuk eta Simonek Espainiako Mendi Federazioak emandako sari berezia jaso zuten.

**zine**

KARTELDEGI

ntzokia

"Tigre y Dragón.

Zapatua: 19:30-22:15

Domekia: 19:30-22:15

Astelehena: 22:15

" Fokemon 2"

Domekia: 16:30

Harry un amigo que os quiere"

Eguena: 21:30

EIBAR, Unzaga**"Tigre y Dragim"**

Barixakua: 22:15

Zapatua: 17:00-19:30-22:15

Domekia: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30-¹):15

Martitzena: *19:30-*27:15

"Descubriendo a Forrester"

Barixakua: 19:30-22:15

Zapatua: 17:00-19:45-22:30

Domekia: 17:00-19:45-22:30

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: *19:30-*22:15

BERGARA, Ni edades**"Billy Elliot"**

Barixakua: 22:30

Zapatua: 17:00-19:30-22:30

Domekia: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: *19:30

"Deseando amar"

Eguena: 21:30

"Billy Elliot"

Barixakua:

Zapatua: 19:30-22:30

Domekia: 19:30-22:30

Astelehena: 19:30-22:30

"Baloia"

Domekia: 16:30


Ikuslearen eguna

**"Tigre y Oragon"**

Zuzendaria: Ang Lee.

Antzezleak: Chow Yun-Fat, Michelle Yeoh, Zhang Ziyi.

XIX. mende hasierako Txinan kokatzen da istorio hau. 400 urte baino gehiago dituen ezpata legendario baten lapurretak, aspaldiko bi lagun elkartuko ditu. Bata arte martzialtako maisua eta ezpataren jabea da eta bestea, berriz, momentu horretan ezpata zaintzeko ardura zuena. Lapurra bilatzeko ikerketa hasiko dute biek. Hasiera baten Jade Fox hiltzaile famatua joko dute lapurtzat. baina berehala konturatuko dira gobernadoreak berak ere baduela zerikusirik lapurketarekin.





ste honetako erretratu zaharra Luis Cerronek laga digu eta pasa berria den Aste Santua gogorazten du. 1957. urteko argazkia da. San Pedro tailerreko langileak Aste Santuan biltzeko ohitura zuten eta bilgune haietako batean atera zuten erretratu dotore hau. Ondoren, merienda ere egin zuten. Eskuman mahaia prest dutela ikus dezakezue. Hauek dira bertan agertzen direnak:

- | | | |
|---------------------------------|---|------------------------------|
| 1. Miguel | 9. Fidencio Cerron | 16. Jose Fernandez |
| 2. Luis Cerron | 10. Emaginaren arreba
(izen ezezaguna) | 17. Luis Perez |
| 3. Ezezaguna | 11. Sinesio | 18. Teodoro Gil "Pitxu" |
| 4. Amando Serna | 12. Franco Juarez. | 19. Beristain |
| 5. Alvaro Espiga (+), "Burgos". | 13. Ledesma (+) | 20. Agustin Arrate "Markina" |
| 6. Julian Espiga "Burgos" | 14. (Madrildarra) | 21. Ezezaguna |
| 7. Ezezaguna | 15. Eduardo Isidro | 22. Magencio |
| 8. Rivino Bermtidez "Casarilla" | | 23. Julio Garcia |

Lat


ESKERTZA

2001eko apirilaren 15ean, 68 urte zituela hil zen
ROSARIO ECHANIZ GURRUCHAGAren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2001eko apirilaren 10ean, 48 urte zituela hil zen
FRANCISCO JAVIER ZARZUELO ALTUNA.
Javi: "Eskerrak Jaunari gure adierazpenak aurkezteagatik"
ELGOIBARKO UDALEKO LANKIDEAK



UGARI

LIKIDAZIOAN

APIRILAREN 23TIK AURRERA

Errosario, 27 • Tel. 943 742 202



- + Bainugelako altzariak
- + Etxerako osagarriak
- + Ferreteria



Laster San Bartolome kalean!

TXAPELKETA NAGUSIRAKO GIPUZKOAKO SAILKAPENA 2001

APIRILAK 20
HERRIKO ANTZOKIAN
Gaueko 10:30ean

ANTOLATZAILEA

Gipuzkoako
Bertsotzale Elkarte

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala



ARITZ ARANBURU




ARRALITZ GOIKOETXEA



UNAI AGIRRE



EKAITZ GOIKOETXEA



BIXENTE GOROSTIDI



JON MARTIN



HOBETU ZURESTXEA, BARRUM... ETArKANPOTIK!



OTIS

IKUSI



Debako Udala



Etarko Udala



Elgoibarko Udala



Ermuako Udala



DEDEGM
GURE ERAIKINEN
ERREHABILITAZIORAKO
KANPAINA

Natu. ^{r P up}

1

Euskaltel



Mallabko Udala

Or-1
7,78

Mendarcho Udala

f%1%
t414I
Nil 27-

Mutrikuko Udala



Soroluzeko Udala

4

Debegesak konponketarako zerbitzua eskaintzen dizu. Zerbitzu horrek egin behar duzun lanari buruzko asesoramendua eta informazioa emango dizu. Zenbaki honetara deituz, Eibarren ditugun bulegoetara edo Deba Beheko Udaletan jaso dezakezu informazioa.

Informa zaitez!

Tfnoa. 943 82 01 78



Debegesa
www.debegesa.com

Egin beharreko konponketeri buruzko informazioa emateaz gain, eta Eusko Jaurloritzak, Udalek eta Enpresek ematen dituzten diru-loguntzak jasotzen lagunduko dizugu eta arlo teknikoan eta administratiboan lagunduko dizugu.